

**Kataluniako Sindiko eta Herritarren Defendatzaileen Forumak egin duen aldarria,**  
**Pobreziaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta**<sup>1</sup>

Duela urte eskas pobrezia gure planetako eremu jakin batzuetara mugatzen zen, gure hirietatik urrun, gure kontinentetik urrun.

Zoritxarrez, baina, azken garaiotan, nazioarteko krisia dela eta, pobrezia gure herrialdera iritsi da. Are gehiago, Caritas, Gurutze Gorria eta bestelako erakundeek nabarmendu dutenez, egoera kronikoa egiten ari da eta, larriago dena, baliabide gabeziak haurrei eragiten die gehien. Datuak izugarriak dira. Gogora dezagun Espainiako haurren %27,5 pobreziaren atalasetik behera bizi direla, UNICEFek Espainiako haurrei buruz 2014an eman duen txostenean ageri denez.

Haur nahiz helduetan pobrezia desagerrarazteko, ezinbestekoa da gobernuei ohartaraztea errenta mailako desberdintasun handiek, pobrezia sozial, kultural eta, jakina, ekonomikoa ere, biderkatzea, esponentzialki haztea dakartela. Geroaren motor diren haur eta gazteetan behar beste inbertitzen ez bada, horrek etorkizuneko aukeren falta ekarriko du, eta herriaren oinarria hazkunde ekonomikorako prest ez egotea eragingo du. Premisa hori gabe ezinezkoa da ongizate-gizarte bat eratzea; are gutxiago, errenta birbanatuko duen ekonomia bidezko bat, muturreko pobrezia uxatuko duena.

Geure udaletako Gizarte Zerbitzuak saiatzen dira, ahal duten neurrian, arazoa arintzen, baztertuen dauden herritarrei gutxienez elikagaiak emanez. Halaber, aipaturiko elkarteak eta beste hainbat, antolatu egiten dira oinarri-oinarrizko baliabideak eskaini ahal izateko. Hain da agerikoa gure gizarteko zati handi bat pobreziaren ertzean bizi dela, ezen, ari baitira, ari, gizarte zibileko beste hainbat kide ere beren artean antolatzen eta saiatzen, gero eta familia gehiago mehatxatzen dituen lasta hau arindu nahian.

Une hauetan, ulertezina dirudi estatuko aurrekontuek lehentasunik ez ematea gizarte arloko partidei, eta bai aldiz itxaron dezaketen kontuei, edota, zilegi bazaigu esatea, beharrezkoak ez diren helburuei.

Pobreziaren gaia sinplea da, eta aldi berean korapilatsua, eta nazioarteko mailari begiratzen badiogu, berriz, ez dugu nahikoa izango artikulutxo batekin, edota uste oneko hausnarketa batekin. Beraz, laguntzen segi beharra dugu eta, batez ere, geure ahotsa sentiarazten, gizaki ororen duintasuna defendatua eta babestua izan dadin. Sindiko eta Defendatzaile moduan, beharturik gaude herritarren eskubideak defendatzera eta, pertsona garen aldetik, ustelkeriaren eta diru publikoa eralgitzearen aurka aldarri egiteko betebeharrak morala dugu. Desberdintasun injustuen kontra borrokatu beharra dugu, eta indarrak eta itxaropenak galdu dituzten horien alde, beren ahotsa entzunarazteko ahalmenik ez duten horien guztien alde.

---

<sup>1</sup> Vitoria-Gasteizko Sindikoa, "*Forum de Sindics, Sindicques, Defensors i Defensores Locals de Catalunya*"ri atxikitako erakundea da.